



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Orekako Departamentua

ELKARLANA

ESKAERAREN TXOSTENA OSATZEKO GIDA



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Orekako Departamentua

OHARRAK:

Jarraian eskabidearen balorazio egokia egin ahal izateko eskabidearen txostenak jorratu beharko liratekeen arloak azaltzen dira.

Aplikatioan eskaera txostenaren formularioa betetzea derrigorrezkoa da. Horretaz gain, dokumentu osagarriak erantsi daitezke aplikatibora.



Helburua

HAUTAGARRITASUNA

- Proiektuaren kokapena “Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzaren sustatzeko programa” arautzen duen 2018ko maiatzaren 08an Diputatuen Kontseiluak onartutako erabakiaren IV. Eranskineko 3. oinarrian aurreikusitako jarduera hautagarrien barruan.

ZERTARAKO

- Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa
- Aldatu/hobetu nahi den egoeraren deskribapena/diagnostikoa
- Helburua
- Aplikazio eremua
- Lortu nahi diren emaitzak/hobekuntzak
- Orain artean garatutako jarduerekin alderatuz proiektuak duen balio erantsia
- Elkarlanaren abiapuntua
- Elkarlanaren balio erantsia
- Zer eragin izango duen (merkatuetan, fakturazioan, enpleguan,)
- Zer eragin izango dute garatuko diren ekintzak garapen iraunkorreko eredu batzuetan (gizartea, ekonomia, eta ingurumena)



Garatuko den proiektua

ZER - NOLA

- Garatuko den proiektuaren eta ekintzen deskribapena
- Proiektuaren dimentsioa eta hedadura
- Erabiliko den metodologia
- Aurreikusitako egutegia
- Entregagaiak

NORK

- Proiektuan parte hartuko duten entitateen deskribapena,
- Departamentuarekin harremanak izateko taldea izendatzea
- Aurreikusitako lan taldea: pertsonak (gaitasunen profila barne) eta baliabideak.
- Lankidetzak akordioa erantsi

Garatuko den proiektua txertatu/barneratuta/landu eduki beharko lituzke, besteak beste:

- Proiektuaren txertaketa enpresak dituen plan eta estrategiekin
- Proiektuarekin eragina izan nahi den arloetan garatutako jarduerak orain artean.
- Izaera eraldatzailea: esperimentazioa jomuga izatea, proiektuaren elementu eraldatzaileak, eraldaketa maila.
- Ikasitakoa eta praktika onak indarrean jartzea, aprobetxamendua eta aurreko esperientzietako emaitzak kontuan izatea (entitatearen nahiz kanpokoak)
- Elkarlanaren eta prozesu parte-hartzaileen antolaketa: Entitate parte-hartzaileek hartutako konpromisoak, barruko nahiz kanpoko elkarlana, arloen artekoa eta garatuko diren prozesu parte-hartzaileak edo parte hartzeko ereduak, sektore publikoa eta pribatuaren parte hartzea, informazio eta kontsulta prozesua, lankidetzan aritzeko bitartekoak, parte hartzearen justifikazioa, beste proiektu batzuetako esperientzia....
- Genero ikuspegiaren txertaketa proiektuaren diseinu eta garapenean
- Euskara sustatzeko ekintzak: Zein arau eta prozedura euskarri ditu garatuta entitateak (planak, eta abar), zein esperientzia, entitatearen jardueran euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokionez? Proiektua garatzean, zein izango da euskararen erabilerari emango zaion tratamendua? Zein neurritan egingo dio ekarpena proiektuak euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokionez?
- Bi hizkuntza ofizialen tratamendua
- Aurreikusitako ebaluazio, jarraipen eta neurketa sistema eta emaitzen aplikagarritasuna
- Garatuko den jarduketaren jasagarritasuna



Barne pertsonala

BARNE PERTSONALA

- Proiektuan parte hartzen duten enpresetako pertsonak erantsi aplikatibora

KANPO PERTSONALA

- Proiektuan parte hartzen duten entitateko pertsonak erantsi aplikatibora

Garatuko diren zereginak eta azpizereginak

NOLA eta NOIZ

- Zereginen atalak eta azpiatalak azaldu:
 - Helburuak
 - Deskribapena
 - Parte hartzaileak
 - Entregagaiak
- Zereginen egutegia:
 - Noiz hasi eta noiz amaitu
 - Zenbat orduko lana



Aurreikusten diren zailtasunak

ZAILTASUNAK

- Diagnostikoa
- Diseinua
- Plangintza eta antolaketa
- Gauzapena
- Koordinazioa
- Bestelakoak